

GURE DEMOKRAZIAREN ALDE EKINEZ

Añorga (2006.5.11)

Gure egiteko historikoa burutu ahal izateko, geure herri-nazioak ulertzen du, ezinbestekoa dela Estatu bildu bat berreraikitzea. Inperialismoari horrelako Estatu batek, soilik, egin diezaioke aurre. Behar historiko hori Nafarroako erregeak ere sentitu izan zuten. Europan eman diren inperialismo jarreraren aurka gure herria gotorleku indartsua izan da, eta horrek berak behartu izan zuen Estatua eraikitzea. Gure herriak Karlomagnoaren inperialismoaren hedapenari inor baino hobeto eman zion etena, horren lekuko Orreaga dugularik. Zoritzarrez gaur arte, oraindik, dirauen Errege "Katolikoek" inperialismo espainiarraren aurka ere azkenekoak eman arte borrokan ari gara. Horrelako sentzibilitate demokratikoa gaur egun ere esna eta bizirik jarraitzen du. Horrek, hain zuzen, Nafarrok ase ezinezko egiteko historikoa betetzen ari garela garbi adierazten du.

Gaur egun, alegia, nafarrok Pirinioetako lurak defendatzen jarraitzen dugu. Inperialistek ezarritako muga geure demokraziaren bizkarrezurra bilakatuko dugu. Daramagun borroka ez da soilik geure herriaren defentsa; aldiz, orain ere, beste zenbaiten herriena ahaztu gabe, noski, Europako maila geo-politikan, elementu pizgarria izaten ari gara; izan ere, Europako askatasuna eta demokraziaren borroka Pirinioetako mendietan ematen ari baikara.

Zelan azaldu gurea den "mirari historikoa" hori? Zelan iraun du horrelako herri batek? Zelan eman aditzera gure kultura eta hizkuntza hainbeste inbasio ondoren? Zelan iraun bizirik Estatu inperialistez inguratuta? Zer du gure herriak beste estatu dun herriak ere ez dutena?

Bere ama-lurra maite izana. Gure arbasoak ez ziran nomadak. Bere ama-lurrean, hain sustrai sakonak dituen herri batek, nahiago izan du borrokan hil, hala gertatuz gero, gure lurretik aldegin baino.

Herri mistika izugarria. Herri kontzientzia, beste era batera esanda. Herria izatearen sentimendua eta maitasuna. Euskal moralitatea nahikoa izan da, inperialistek konkistatu zigutenetik Estaturik gabe iraun ahal izateko. Herri mistika hori ez dugu zentzu peioratiboan hartu behar, bera demokrazia eta askatasuna eraikitzeko oinarria baita.

Hala ere, irautearen benetako arrazoia, herri indarra eta beronen erabilera zuzena edo okerrean aurkitu behar da. Orain arte aipu ditugun zioak indarra erabiltzeko eta borobiltzeko alderdi kualitatiboak liriateke; hau da, praktikan, hain zuzen, indarra gehitzera edo gutxitzera eramango luketenak.

Lehen erakunde politikoak eta administratiboak franko, musulman eta bisigodoen inperioen aurkako borroken ondorioz sortu ziren. Estatuaren eraikitzeak herri izatea sendotzen eta babesten erabateko eragina izan zuen. Seguru aski, sortu dugun tresna eta erakunde politiko garrantzitsuena izan dugu, eta horri esker, oraindik, diraugu.

Gure herriak bizimodu arriskutsu bezain historia dramatikoa izateak, euskaldunon ariman ezaugarri bereziak eta sakonak sortarazi ditu. Ondorioz, esan dezakegu, inoiz etsi gabe sufritu duen herri baten, eta aldizkako zoritxarrak ezagutu dituen beste herri batekin erkatuz gero, bi herri horien izatean alde handia dagoela. Euskaldun arimaren ezaugarriak, hain zuzen, oso nobleak dira: askatasuna maite dugu, balore demokratikoak eta abar. Aldiz, horrelako intolerantzia eta krudeltasuna jasan arazten diguten Espainiako eta Frantziako inperialismoen baloreak inposaketan, indarkerian... azken finean, genozidioan dute sorburua. Historiako testigantza harturik, beraz, bide hori hartu eta jarraitzen ari diren inperialistei lehenbailehen amaiera eman behar diegu.

Etengabeko eraso jasaten duen herriak bere buruaren defentsan soilik, pentsa dezake. Gure historia askatasunaren aldeko borroka baino zertxobait gehiago da: mendeetan irauteko etengabeko borroka, geure bizi iraupena alegia. Guda bakoitzean dena arriskatu izan dugu: bizitzaren eskubidea, hizkuntza, kultura eta abar. Bizitza geuretzat drama izan da, une bakoitza geure bizitzaren azkena bailitzan ezagutu izan dugu. Pirinioetako herri honek bere eraketa politikoaren aldi, inbasio gogorrenak jasan zituen, eta behin Estatu bezala eratuta zegoela, inguratzen zuten estatu inperialisten aurka borrokan jarraitu behar izan zuen. Gure herria mendeetan aberriaren lurrera atxikia egon da; jateko eman izan dion lurraren produktua dirudi; eta bere defentsan, ezinbestean, beti bizitza emateko prest egon da.

Geure inguruan izan ditugun herriak asimilatuak izan dira. Gure herria, aldiz, harreman horietatik zenbait abantaila atera ditu; nahiz hasiera batean gerra egin behar izan, ondorioak baketsu eta emankorrak izan ditu. Gure historia, beste herrienak bezala, guda izan da eta horrek zera adierazten du: munduko ordena eta eraketa ez dela inoiz printzipio moral batzuen arabera antolatua egon; indarrean oinarrituta baizik.

Ikusten denez Politika indarrean datza. Morala, aldiz, jarduera politikoa ez denez, ez du indarraren beharrik.